# BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA
PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

| Obra-kontratua | Contrato de obra |
|---|---|
| **XEDEA:** ZUMAIAKO SAN TELMO KALEKO IGOGAILU PUBLIKOAREN EXEKUZIOA | **OBJETO:** EJECUCIÓN DEL ASCENSOR PÚBLICO DE LA CALLE SAN TELMO DE ZUMAIA |
| **Prozedura ireki erraztua**<br>**Izapidea: ohikoa** | **Procedimiento abierto simplificado**<br>**Tramitación: ordinaria** |



Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

# BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA — AURKIBIDEA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS — ÍNDICE


**I. Kontratuaren edukia**

1.1. Kontratuaren xedea

1.2.Gauzatu beharreko lanen azalpena.

**2. Gauzatzeko baldintzak.**

2.1. Baldintza orokorrak.

2.2. Berariazko baldintzak.

**3. Gauzatzeko epea.**

**4. Prezioa.**

**5. Bermea.**

**6. Balorazio irizpideak.**

a). Automatikoki baloratu beharreko irizpideak

a.1.-). Eskaintza ekonomikoa

a.2.-). Bermealdia luzatzeko proposamena

a.3.-). Emakumeak kontratatuta izatea kontratuaren exekuzioan

b). Automatikoki baloratuko ez diren irizpideak

b.1.-) Proposamen teknikoa

**I.- Contenido del contrato**

1.1. Objeto del contrato

1.2 Descripción de los trabajos a realizar.

**2.- Condiciones de ejecución.**

2.1. Condiciones generales.

2.2. Condiciones específicas.

**3. Plazo de ejecución.**

**4. Precio.**

**5. Garantía.**

**6. Criterios de valoración.**

a). Criterios de valoración automáticos

a.1.-) Propuesta económica

a.2.-) Propuesta de ampliación del periodo de garantía

a.3.-).Contratación de mujeres en la ejecución del contrato

b). Criterios de valoración mediante juicios de valor

b.1.-)- Propuesta técnica




Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

**1.- KONTRATUAREN EDUKIA**

1.1. Kontratuaren xedea

Plegu hau oinarri hartuta egingo den obra kontratuaren helburua, San Telmoko igogailu publikoa exekutatzea da.

Udalaren helburua igogailu publiko baten exekuzioa da, San Telmo kalea eta Larretxo auzoaren artean. Era honetara, San Telmo kalean, Ardantzabide auzoko babes ofizialeko etxebizitzen atzealdean kokatuko da, oin plantan Larretxoko errepidea eta San Telmo kalekoa kokatuz gero, bien arteko erdi gunean. Ondorioz, San Telmo kalean oinezko sarbide zabala egokituko da igogailuaren atariraino. Ibilbide irisgarriari jarraipena emateko asmoz, sarbide honen inguruko urbanizazioa ere egokitu egingo da. Larretxo auzoko kotan aldiz, hormigoi armatuzko egitura bat osatuko da igogailuaren irteera eta Larretxoko espaloia lotuko dituena. Arrapala honi jarraituz, errepidearen bestalderaino ibilbide irisgarria luzatuz zebra bide altu bat osatuko da, oinezkoari lehentasuna emanez. Ibilbide guztian udalak beharrezkoak ikusi dituen azpiegiturak egokituko dira.

1.2. Gauzatu beharreko lanen azalpena.

Gauzatu behar diren lanak ERANSKIN gisa doan PROYECTO BÁSICO Y DE EJECUCIÓN DE ASCENSOR PÚBLICO EN U.E.2.2 DEL ÁREA URBANA A.U.02 ARRABAL SAN TELMO DE ZUMAIA proiektuan definitzen dira eta plegu honen zati dira. Proiektua URKAIN S.L.P. estudioak idatzi du eta Zumaiako Udalak interesdunen eskura jarri du.

**2. GAUZATZEKO BALDINTZAK.**

2.1. Baldintza orokorrak.

1. Gauzatu beharreko obrak lan horietarako behar bezalako prestakuntza duten langileek egingo dituzte. Arreta handiz gauzatuko dira, eraikuntzako jardunbide egokien arabera eta Zumaiako Udalak izendatuko duen zuzendaritza

**1.- CONTENIDO DEL CONTRATO**

1.1. Objeto del contrato

El contrato de obras que se rige por los siguientes pliegos pretende la ejecución del ascensor público de San Telmo.

El objetivo del ayuntamiento es la ejecución de un ascensor público entre la calle San Telmo y el barrio de Larretxo. El ascensor se situará en la calle San Telmo, detrás de las viviendas de protección oficial de Ardantzabide, aproximadamente en planta en el centro entre la proyección del vial de Larretxo y la calle San Telmo. Por ello, desde la calle San Telmo hasta la entrada al ascensor se adecuará un amplio acceso y se reorganizará la urbanización para dar continuidad al itinerario accesible. En la cota del barrio de Larretxo, la salida del ascensor y la zona acera se unirán mediante una estructura de hormigón armado. Dando continuidad a esta rampa, se proyecta un paso de cebra elevado que da prioridad al peatón para acceder al otro lado de la calzada. En todo el ámbito de la obra, se adecuan las infraestructuras que el ayuntamiento ha creído necesarias.

1.2. Descripción de los trabajos a realizar.

Los trabajos a realizar quedan recogidos en el PROYECTO BÁSICO Y DE EJECUCIÓN DE ASCENSOR PÚBLICO EN U.E.2.2 DEL ÁREA URBANA A.U.02 ARRABAL SAN TELMO DE ZUMAIA, que acompaña como ANEXO, y forma parte de este pliego. El proyecto ha sido redactado por el estudio URKAIN, S.L.P. y se encuentra a disposición de los interesados en el Ayuntamiento de Zumaia.

**2.- CONDICIONES DE EJECUCIÓN.**

Condiciones generales.

1.- Los trabajos a realizar serán llevados a cabo por personal debidamente cualificado para ello, se ejecutarán esmeradamente con arreglo a las buenas prácticas de la construcción y cumpliendo las instrucciones de la dirección

fakultatiboaren jarraibideak betez.

facultativa designada al efecto por el Ayuntamiento de Zumaia.

2. Adjudikaziodunak solaskide eta obra arduradun egokiak izendatuko ditu. Solaskidea enpresaren ordezkaria izango da, eta arduraduna langileen buru, eta lanen koordinazioa eta kudeaketa zuzena eramateko gaitua izan beharko du. Pertsonal teknikoa obren exekuzioan esperientzia zabala duena hobesten da.

2.- La parte adjudicataria designará una persona interlocutora válida que ostentará la representación de la empresa, así como una persona responsable (jefe/a de obra) que estará al frente de las personas operarias y que deberá estar cualificada para llevar la gestión directa y la coordinación de los trabajos. Se recomienda personal técnico de amplia experiencia en este tipo de obras.

3. Obran lan egingo duten kontratatuko langile guztiak identifikatuta joan beharko dute.

3.- Todo el personal de la contrata que trabaje en la obra deberá ir identificado.

4. Enpresa adjudikazioduna izango da aplikagarri izango den Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko araudia betetzeko arduraduna.

4.- La empresa adjudicataria será responsable del cumplimiento de la normativa estatal, autonómica y local que le sea de aplicación.

2.2. Berariazko baldintzak.

2.2. Condiciones específicas.

1. Gaur egungo egoera eta dauden zerbitzuen oinarrizko dokumentuak, honekin batera doan PROYECTO BÁSICO Y DE EJECUCIÓN DE ASCENSOR PÚBLICO EN U.E.2.2 DEL ÁREA URBANA A.U.02 ARRABAL SAN TELMO DE ZUMAIA jasota daude eta informatzeko dira, beraz, zuinketak obran egiaztatuko dira. Plegu honetan, hitzez hitzeko zehaztapenak gailenduko zaizkie grafikoei eta planoei, hala balegokio, kota gailentzen zaio eskalako neurriari.

1.- La documentación básica del estado actual como de los servicios existentes queda recogida en el PROYECTO BÁSICO Y DE EJECUCIÓN DE ASCENSOR PÚBLICO EN U.E.2.2 DEL ÁREA URBANA A.U.02 ARRABAL SAN TELMO DE ZUMAIA y tiene carácter informativo, por lo que todas las cotas y trazados de servicios se comprobarán en obra. En este pliego las especificaciones literales prevalecen sobre las gráficas y en los planos, en su caso, la cota prevalece sobre la medida a escala.

2.. Zerbitzuen eraberritzean edo konexioei dagokienean, ezer egin baino lehen, hornidurak ematen dituen aukera desberdinak aztertuko dira, etenik egon ez dadin, edo beste aukerarik ez balego, hornidura lehenbailehen berreskuratu ahal izateko. Horniduraren etenak, aldez aurretik antolatuko dira eta gutxienez ere 48 ordu aurretik jakitera emango dira. Aldaketak hauek guztiak, obra hasi aurretik Obra Zuzendaritzarekin adostuko dira eta Udal Zerbitzu Teknikoei informatuko zaie, onartuak izan daitezen. Oinezkoentzako ibilbidean egin beharreko lanetan, ibilbide alternatibo bat mantenduko da, oinezko konexioa beti egon dadin. Bide-sarean egingo diren obra zibileko lanak txandaka egingo dira erreien artean, bidea uneoro ibilgailuentzat zabalik

2.- En cuanto a los servicios se refiere, antes de actuar se plantearán alternativas de suministro para que no haya cortes, o en caso de que no existieran alternativas posibles, para que los suministros se reestablezcan lo antes posible. Los cortes de suministro se programarán con antelación y se harán público como mínimo 48 horas antes. Todas estas modificaciones se acordarán antes del comienzo de las obras con la Dirección Facultativa y se trasladarán para su aprobación a los Servicios Técnicos Municipales. En los trabajos a realizar en el itinerario peatonal, se mantendrá un itinerario alternativo para que siempre siga existiendo la posibilidad de conexión peatonal. Aquellos trabajos de obra civil que se vayan a ejecutar en la red viaria, se ejecutaran de forma alternativa entre

mantentzeko, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri eta seinaleztapen egokiekin.

carriles, para mantener en todo momento el vial abierto al tráfico rodado, con las medidas y señalización adecuadas establecidas en la normativa vigente.

3. Ondoren, kontuan hartu beharreko hizkuntza irizpideak zehazten dira.

3.- A continuación se definen los criterios sobre el idioma de comunicación que se deben cumplir.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera. Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles. Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración.

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz; kanpo geratzen dira txosten eta memoria teknikoak. Ahozko harremanak ere euskaraz izango dira, ahal den neurrian.

Las relaciones tanto escritas habituales (contratos, facturas, etc.) de la empresa con la administración se ajustarán a la lengua de trabajo de ésta última, es decir, en euskera; quedan al margen los informes y memorias técnicas. Las relaciones verbales serán asimismo en euskera, siempre que sea posible.

4.- Hizkeraren erabilera baldintzak:

4.- Criterios sobre el uso del lenguaje:

Egindako komunikazioak hizkuntzaren erabilera ez sexista egingo du, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak adierazten duen bezala.

Toda comunicación que realice hará un uso no sexista del lenguaje, conforme a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres.

5. Kontratistaren ardura izango da eta bere kontura joango da, lanak egiteko baimenak eta lizentziak lortzea. Eskumena duten erakundeek ezarritako baldintzak eta aginduak betetzea bere gain joango da. Baimen edo lizentzia horiek lortzeak tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk sortuko balituzke, horien ordainketa ere kontratistaren gain joango da.

5.- Será de cuenta y responsabilidad de la parte contratista la obtención de cuantos permisos, licencias y autorizaciones sean precisas para la correcta ejecución de las obras, debiendo atender a su cargo los consiguientes condicionados y prescripciones de los organismos competentes. Cuando se exijan tasas, fianzas u otros gastos por dichos permisos, licencias o autorizaciones, su abono o depósito será también a cargo de la contratista.

6. Materialen baldintza teknikoei, kontrolari eta materialen erabilerari dagozkien zehaztapenak, neurketa-irizpideak, eta abar, Proiektuan daude jasota.

6.- Las especificaciones referentes a las condiciones técnicas de los materiales, el control y manipulación de los mismos, así como los criterios de medición, etc. quedan recogidos en el Proyecto de Ejecución.

**3. GAUZATZEKO EPEA**

Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko epea, guztira, 100 egunekoa izango da. Obra exekuzio epea zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik hasitako da.

**3. PLAZO EJECUCIÓN**

El plazo total de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de 100 días. Este plazo empezará a contar al día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo.

**4. PREZIOA**

Proiektuan jasota dagoen aurrekontuaren banakapenaren arabera, lizitazioaren aurrekontua BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA BAT EURO, ETA HAMAZAZPI ZENTIMOKOA da, (295.501,17€-), BEZa barne.

**4. PRECIO**

El presupuesto de licitación, según desglose del presupuesto recogido en el proyecto, asciende a la cantidad de DOSCIENTOS NOVENTA Y CINCO MIL QUINIENTOS UN EUROS Y DIECISIETE CENTIMOS (295.501,17€-), IVA incluido.

Lizitatzaile bakoitzak IV. ERANSKINEAN definitutako proiektuko obra exekuziorako prezioa eskainiko du. Eskaintza honen balorazioa 6.a.1.-) puntuan ezarritakoaren arabera egingo da. Eskainitako prezioak partiden prezio unitario eta neurketak izango ditu, behar bezala xehakatuak, eta hauek izango dira indarrean obra exekuzioan. Unitateko prezioak behar bezala banakatuta egongo dira, eta kontratua gauzatzean horiek egongo dira indarrean. Prezio horiek ez badira aurkezten ulertuko da lizitatzaileak Administrazioaren aurrekontukoak hartu eta bere proposamen ekonomikoko edukiaren beherako ehunekoa ezarriko diela.

Cada parte licitadora ofertará el precio para la ejecución de la obra definido en el proyecto ANEXO IV. La valoración de dicha oferta se efectuará según el baremo establecido en el punto 6.a.1.-). El precio ofertado incluirá una relación de precios unitarios y mediciones, debidamente desglosados, que son los que regirán durante la ejecución del mismo. Si tales precios no son presentados se entenderá que la parte licitadora aporta los mismos del presupuesto de la Administración, afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica.

Lizitatzaileek, eskaintza ekonomikoa egiterako orduan, aurrekontuko partidetako banakako prezioak aldatu ahal izango ditu, ezingo ditu proiektuko neurketak ez eta materialak aldatu, eta proiektuan daudenak errespetatuko dira. Era honetara, aurkeztutako eskaintzak aldaragarriak izango dira. Edozein kasutan, neurketetan edo prezioetan akatsak antzemango balira, 6.b.1) PROIEKTUAREN ANALISIA atalean agerian jarri daitezke, baina hauek ez dira erabiliko enpresa lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa egiterako orduan.

A la hora de efectuar la oferta, la parte licitadora tan solo podrá modificar los precios unitarios, no podrá modificar las mediciones del proyecto ni los materiales a emplear, se respetarán las del proyecto de obras. De esta manera, todas las ofertas serán comparables. En cualquier caso, si se detectarán deficiencias en las mediciones o precios, se podrán señalar cuales son en el 6.b.1.) ANALISIS Y ESTUDIO DEL PROYECTO, a modo de apercibimiento, pero nunca utilizar para la oferta que realice la empresa licitadora.

Gauzatutako obren ordainketa obren zuzendari fakultatiboek emango dituen hileroko ziurtagirien bitartez egingo da, eta udal zerbitzu teknikoen oniritzia jasota.

El pago de las obras ejecutadas se realizará mediante certificaciones mensuales expedidas por la dirección facultativa de la misma y posterior aprobación de los servicios técnicos

**5. BERMEA.**

Bermearen epea gutxienez **URTE BATEKOA** izango da, edo adjudikaziodunak adierazitakoa, 6.a.2.-) adjudikazio irizpidean zehazten denaren arabera, obraren harrera akta sinatzen denetik zenbatzen hasita. Bermea eraginkorra izango da proiekta osatzen duten material eta instalakuntza guztietarako.

**6. BALORAZIO IRIZPIDEAK**

Hona hemen kontratua adjudikatzeko eta eskaintzak balioztatzeko oinarri diren irizpideak:

a.-) Automatikoki baloratu beharreko irizpideak (75 puntu)

a.1.-) Eskaintza ekonomikoa.....60 puntu

III. ERANSKINEAN zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da, eta hauxe izango da balioespenerako formula:

P= eskaintza baxuena x gehienezko puntu
Balioztatzen den eskaintza

Aparteko kontu-sail modura, administrazioari egokituko zaion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute lizitatzaileek.

Oharra: BEZa ez da kontuan hartuko balioespenean.

Eskaintza ekonomikoaren aurrekontu xehakatua aurkezten bada, NEURKETAK ETA AURREKONTUAK agirian zehazten denaren arabera egingo da. Aipatutako agirian ezarritako diru-sail, azpi-kapitulu eta kapituluen arabera aurkeztu beharko da eskaintza eta proiektuko aurrekontuko dokumentu guztiak izango ditu (aurrekontu zatitua partidetan neurketa eta prezio unitarioekin eta aurrekontuaren amaiera orria edo laburpena); horrekin batera, aurkeztutako aurrekontuaren laburpen orriak aipatutako proiektuko

**5. GARANTÍA**

La duración del plazo de garantía será como mínimo de **1 AÑO**, o el ofertado por la parte adjudicataria según se establece en el criterio de adjudicación definido en el apartado 6.a.2.-), a partir de la fecha de recepción de la obra. El plazo de garantía será efectivo para todos los materiales e instalaciones que incluye el proyecto.

**6. CRITERIOS DE VALORACIÓN**

A continuación se definen los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados:

a.-) Criterios de valoración automáticos (75 puntos)

a.1.-) Oferta económica: ……..60 ptos

Se presentará de conformidad al ANEXO III y la fórmula para la valoración será la siguiente:

P = oferta más baja x máxima puntuación
Oferta a valorar

Los/las licitadores/as deberán indicar obligatoriamente, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido que deba soportar la Administración.
Nota: el IVA no se tiene en cuenta en la valoración.

En caso que se adjunte la oferta detallada, se presentará según desglose del documento MEDICIONES Y PRESUPUESTOS del citado proyecto. La oferta se presentará según las partidas, los subcapítulos y capítulos que se establecen en el citado documento y contendrá todos los apartados del documento del proyecto (presupuesto por partidas con mediciones y precios unitarios, hoja resumen); asimismo, la hoja resumen del presupuesto presentado, tendrá correspondencia con la hoja resumen del documento RESUMEN DEL

AURREKONTUAREN LABURPENA agiriaren laburpen orriarekin bat etorri beharko du.

PRESUPUESTO del citado proyecto

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoetatik zeintzuk desproportzionatuak edo ausartegiak diren definitzerako orduan, Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onesten dueneko 85. artikuluak ezarritakoari jarraituko zaio.

A la hora de determinar aquellas ofertas económicas desproporcionadas o temerarias se atenderá a lo que establece el artículo 85 del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos del Sector Público.

a.2.-).-Berme-aldia luzatzeko proposamena…10 puntu

a.2-).Propuesta de ampliación del periodo de garantía……..……10 puntos

Pleguan zehaztutako bermearen epearen zabaltzea balioztatuko da, proportzionaltasun irizpideari jarraituz, baremo honen arabera:

Se valorará la ampliación del plazo de garantía sobre el fijado en el pliego, siguiendo un criterio de proporcionalidad, según el siguiente baremo:

- 12 hilabeteko zabaltzea 2 puntu
- 18 hilabeteko zabaltzea 4 puntu
- 24 hilabeteko zabaltzea 6 puntu
- 30 hilabeteko zabaltzea 8 puntu
- 36 hilabeteko zabaltzea 10 puntu

- Ampliación de 12 meses 2 puntos
- Ampliación de 18 meses 4 puntos
- Ampliación de 24 meses 6 puntos
- Ampliación de 30 meses 8 puntos
- Ampliación de 36 meses 10 puntos

a.3.-) Emakumeak kontratatuta izatea kontratuaren exekuzioan ……..…..5 puntu

a.3.-) Contratación de mujeres en la ejecución del contrato……..5 puntos

Aurkezten den ekipo teknikoan edo exekuzioan emakumeak lanaldi osorako kontratatuta izatea edo kontratu berriak izatea balioetsiko da, 2,5 puntu emanez emakume bakoitzeko eta lanaldi osoan. Kontratazioa lanaldi osoa baino gutxiagokoa izanez gero, proportzionalki balioetsiko da. Aipatu emakumeak zuzenean parte hartu behar dute ekipo teknikoan edo obra exekuzioan.

Se valorará que en el equipo técnico propuesto o en la propia ejecución estén contratadas o se contraten mujeres en jornada completa, a razón de 2,5 puntos por cada mujer. Si la contratación fuese menor que la jornada completa, se valorara proporcionalmente. Las citadas mujeres deberán ser parte del equipo técnico propuesto o participar en la propia ejecución de la obra.

b.-)Automatikoki baloratuko ez diren irizpideak (25 puntu)

b.-) Criterios de valoración mediante juicio de valor (25 puntos)

b.1.-)Proposamen teknikoa.....25 puntu

b.1.-).-Propuesta técnica……. 25 puntos

Proposamen teknikoan 12,5 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditzen ez duten eskaintzak ez dira kontuan hartuko, eta lehiaketatik kanpo geratuko dira. Atal honetan gehienez ere 30 orri bi aldetatik idatziak aurkeztuko dira A4 formatuan, eta A3 formatuko orrialde bakoitza 2 orrialde bezala kontatuko da.

Las ofertas que no superen una puntuación mínima de 12,5 puntos en la propuesta técnica no serán consideradas y quedaran excluidas del concurso. En este apartado se presentarán como máximo 30 páginas a dos caras en formato A4, y una cara en formato A3 se computará como una hoja a dos caras A4.

Proposamen teknikoak agiri hauek jaso beharko ditu:

-Proiektuaren analisia, azterketa eta exekuzio prozeduraren definizioa (15 puntu)

Honako puntu Hauek kontuan hartuta aztertuko da proiektua: obraren eraikuntza prozedurak, proiektuan aurreikusi diren materialak eta exekuzio sistemak. Hauek enpresa berearen ikuspuntutik aztertutako dira, hauen egokitasuna ikusiz eta administrazioarentzako interesgarriak izan daitezkeen hobekuntzak edo aldaketak proposatuz. Proposamen hauen balorazioa aurkeztuko da, aldaketak eragiten dien alderdi guztietatik: ingurumena, ekonomikoa, soziala…

- Proiektuaren azterketa: 5 puntu
- Aurkeztutako proposamenak, hauen egokitasuna eta kalitatea: 10 puntu

-Aurreikusten den obra exekuzio denbora plangintza, ekipoen zehaztapena eta errendimendua (5 puntu)

Ezarritako epea arrazoituko da, eraiki beharreko obra unitate bakoitzaren epea azalduz zehaztuko da, programatutako denborak arrazoituz eta baliabide pertsonal eta lagungarrien erabilera zehaztuz. Hilero exekutatzea aurreikusten diren obra lanen balioespen portzentuala txertatuko da (ez da inongo dokumentutan eskaintza ekonomikoari buruzko daturik aurkeztuko).
(denbora plana aurkezten ez bada edo eskainitako exekuzio epearekin bat ez badator, 0 punturekin balioetsiko da.)

-Giza baliabideak ( 5 puntu)

Lizitatzaileak bere eskaintzan obra gauzatzen den bitartean izateko konpromisoa hartu duen lantalde teknikoaren deskribapena sartuko du. Era honetara, taldea osatuko dutenen titulua, gauzatutako lanak eta obra honetarako dedikazioa adieraziko ditu, parte hartze zuzena edo zeharkakoa den definituz eta lanaldiarekiko ehunekoak emanez. (Ez dira izenak aurkeztuko, soilik aurkezten den ekipoaren norbanakoaren funtzioak)

Ez da inola ere zehaztu behar puntu honetan generoari dagokion edozein datu, hau

La propuesta técnica contendrá:

-Análisis y estudio del proyecto, definición del proceso de construcción (15 puntos)

Se analizará el proyecto, incluyendo estos puntos: el proceso constructivo de la obra, los materiales proyectados y los sistemas de ejecución. Se analizarán estos desde el punto de vista propio de la empresa, analizando la idoneidad de los mismos y proponiendo mejoras o cambios que desde el punto de vista de la empresa puedan ser interesantes para la administración, valorando estas propuestas desde los criterios a los que afecta el cambio: medio ambiente, económico, social…

- Análisis del proyecto: 5 puntos
- Propuestas realizadas, idoneidad y calidad de las mismas: 10 puntos

-Planificación de los plazos previstos, dimensionamiento de equipos y rendimientos (5 puntos)

Se presentará la justificación del plazo ofertado, especificando la duración de cada unidad de ejecución, la justificación de los tiempos programados y medio humanos y auxiliares utilizados, incluyendo la valoración de forma porcentual del volumen de obra que se pretende ejecutar cada mes (sin que en ningún momento se incluya la oferta económica que se realiza).
(si no se presenta el planning de la obra o no es coherente con el plazo ofertado, se valorará con 0 puntos)

-Medios humanos (5 puntos)

La parte licitadora incluirá en su oferta la descripción del equipo técnico que se compromete a tener durante la ejecución de la obra, indicando titulación, trabajos realizados y la dedicación que van a disponer en valores porcentuales del total de la jornada, y si esta va a ser directa o indirecta.
(No se presentara el nombre de cada trabajador propuesto, sino el puesto de trabajo que tiene asignado)

En ningún caso se deberá indicar ningún dato relativo al género, ya que este concepto es

automatikoki baloratu daitekeen irizpidea baita.

puntuable en los criterios de valoración automática.

Azpi-kontratistak eta hornitzaileak, Kontratuaren zein zati azpikontratatuko den adierazi beharko da, kontratuaren zenbatekoarekin eta kontratatutako enpresaren izenarekin batera. Gainera, azpikontratatutako enpresaren enpresa-profila ere jasoko da. Era berean, enpresa horrek kontratua gauzatzeko duen gaitasuna justifikatu beharko da, erabilgarri dituen giza baliabideei eta baliabide materialei nahiz esperientziari erreferentzia eginez, azken urteotan egindako obra lanekin.

Subcontratistas y proveedores/as. Deberá indicarse que parte del contrato tengan previsto subcontratar, indicando su importe y el nombre junto con el perfil empresarial de la empresa subcontratista, justificando suficientemente la aptitud de ésta para ejecutarla con referencia a los medios técnicos y humanos de que dispone y su experiencia, con obras ejecutadas recientemente.

| | |
|---|---|
| **EGINBIDEA:** Zumaiako Udaleko Alkateak, baldintza teknikoen agiri hau onartu du 2021eko azaroaren 23ko 1200/2021 Alkate Dekretu bidez. | **DILIGENCIA:** El presente Pliego de prescripciones técnicas ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía 1200/2021 de fecha 23 de Noviembre de 2021. |

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

**GORKA URGOITI AGUIRRE**
**23/11/2021**